

**18**  
**/**  
**19** **EUSKADIKO  
ORKESTRA  
SINFONIKOA**  
ORQUESTA  
SINFÓNICA  
DE EUSKADI



## **IZOTZ-POKERRA** **PÓKER DE HIELO**

**BACH**  
**STRAVINSKY**  
**OTAOLEA**  
**SIBELIUS**

**Otsaila 22** Febrero  
**20:00 h.**

Teatro PRINCIPAL antzokia  
**Vitoria/Gasteiz**

Concierto n°3139. kontzertua

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)



**EUSKADIKO  
ORKESTRA**

Eusko Jaureritzako herri-baltza  
Sociedad pública del Gobierno Vasco



EUSKADIKO  
ORKESTRA

# EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI

Zuzendari Titularra  
Director Titular

**ROBERT TREVIÑO**

## Musikariak / Los músicos

**Kontzertinoa / Concertino**  
Andoni Mercero

**I biolinak / violines I**  
Waldemar Machmar (1)  
Irene Echeveste (3)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Laura Balboa  
Marie Gaillard  
Ludwik Hamela  
Alexandre Kozouline  
Oscar López  
Maite Menéndez  
Larraitz Oñartzabal  
Ortzi Oñartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

**II biolinak / violines II**  
Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Antoni Kosc (3)  
Amaia Asurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
David Escudero (4)  
Christine Felden  
Anne-Marie Harmat  
Mikel Ibañez  
Joaquín Melara  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

**Biolak / Violas**  
Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Natacha Dupuy-Scordamaglia (3)  
Pascal Arnaud  
Justyna Janiak-Krymer  
Elena Mtz. de Murguía  
Arkaitz Martínez  
Monika Mazur  
Sergio Montero  
Cástor Narvarte  
Diego Nieves (4)  
Yann Seyrac

**Biolontxeloak / Violonchelos**  
Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Pascale Michaud (3)  
Natalia Díaz  
Jacek Grabe-Zaremba  
Jon Larraz  
Flore Lefevre  
Beatriz Linares  
Tetiana Mertelova (4)  
Ian Swedlund

**Kontrabaxuak / Contrabajos**  
Arkadiusz Maciejki (2)  
Paloma Torrado (2)  
Victor Bogdanov (3)  
Andras Cserna  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent  
Guangyao Zhao

**Flautak / Flautas**  
Hélène Billard-Alriol (2)  
Bruno Claverie (2)  
Oihana Kontxeso  
Carlos Rosat

**Oboeak / Oboes**  
Javier Lecumberri (2)  
Hervé Michaud (2)  
Rafael Alonso  
Pascal Laffont

**Klarineteak / Clarinetes**  
Luis Cámara (2) (4)  
José Miguel Chirivella (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufiaurre

**Fagotak / Fagotes**  
Marco Caratto (2)  
François Proud (2)  
Anne Charlotte Lacroix  
Rubén Ferreira (4)

**Tronpak / Trompas**  
Jean-Luc Casteret (2)  
Adrián García  
Marcos Garrido (4)  
Karl Pipkin  
Xabier Sarasa  
Mario Telenti  
Salvador Tudela

**Tronpetak / Trompetas**  
Didier Bousquet (2)  
Miguel Echepeare (2)  
Jesús Castillo  
Daniel Sancasto

**Tronboiak / Trombones**  
Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Javier Almarza  
Hervé Cahen

**Tuba**  
Oscar Abella (2)

**Tinbalak eta perkusioa**  
Timbales y percusión  
Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Igor Arostegi  
Xabier Peña

**Harpa / Arpa**  
Elisabeth Colard (2)

- (1) *Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino*  
(2) *Bakarlaría / Solista*  
(3) *Lehen tuttia / Primer tutti*  
(4) *Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal*

**MÉLANIE LEVY-THIÉBAUT**  
zuzendaria / directora

Otsaila  
**22**  
Febrero

# EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI

## EGITARAUA / PROGRAMAMA

### I **Johann Sebastian Bach** (1685 - 1750)

*Anton Webernen orkestrazioa*

**MUSICAL OFFERING, BWV 1079. FUGA (RICERCARE N°2) À 6 VOCI [11']**

*Argitaletxea / edita: Universal-Edition A.G.*

**Igor Stravinsky** (1882 - 1971)

**JEU DE CARTES, BALLET EN TROIS DONNES [25'] \***

*Argitaletxea / edita: Schott Music GmbH & Co, Kg*

- I. Première donne : Alla breve - Moderato assai - Tranquillo  
II. Deuxième donne : Alla breve - Marcia - Variazioni 1-5 - Coda - Marcia  
III. Troisième donne : Alla breve - Valse - Presto - Tempo del principio

### II **Xabier Otaolea** (1989)

**IZOZMENDI [12'] \***

*Erabateko estreinaldia; AEOS eta SGAE Fundazioaren enkargua  
Estreno absoluto; obra encargo de AEOS y Fundación SGAE*

**Jean Sibelius** (1865 - 1957)

**LEMMINKÄINEN SUITE, OP.22**

*Argitaletxea / edita: Breitkopf & Härtel*

- I. Lemminkäinen y las doncellas de la isla [17'] \*  
II. El cisne de Tuonela [10']  
IV. El regreso de Lemminkäinen [7'] \*

\* Lehen aldiz interpretaturiko obra. / Obra interpretada por primera vez.

OTAOLEAREN IZOMENDIREN HOZTASUNAK PAREZ PARE IZANGO DU STRAVINSKIREN HAURTZAROKO OROITZAPENEN KARTA-JOKOA, OSO BESTELAKO LANA. BACH ETA SIBELIUSEK BENETAKO BATEKOEN POKERRA OSATUKO DUTE.

## IZOTZ-POKERRA

**M**élanie Levy-Thiébautek oso argi izan zuen bere bokazioa txikitatik. Sei urte zituenean, gaixotu egin zen eta, ez zedin aspertu, haren amak, Graciane Finzi konpositoreak, aulki batera igoarazi zuen Beethovenen sinfoniak zuzentzeko. Klabezina ikasi zuen Parisko Kontserbatorioan, eta orkestra-zuzendaritza Bartzelonako Lizeoan, Antoni Ros-Marbárekin batera; ordutik aurrera, musika garaikidearekin eta ikus-entzunezko proiektuekin lotura handia izan duen ibilbidea garatu du. Balleterako eta zinemako musikarako hainbat lan egin ditu. Esate baterako, 2017ko urrian, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera, musika jarri zion Kosintseven *Babilonia berria* (1929) filmari. Levy-Thiébautek bere klabezinarekiko pasioa eta joera modernistako musiketikiko pasioa uztartzen dituen pieza batekin hasiko du gaur gaueko programa: **Johann Sebastian Bachen Musika-eskaintza** bildumako *Ricercare a 6* lanarekin. Joko duen bertsoa Anton Webernek 1935ean egindako orkestrazio bikaina da; ordurako, Webern *tinbreen melodiaren* maisua zen, hau da, melodia kaleidoskopikoak egiten zituen, hainbat instrumenturen nota askeak elkartzuz.

George Balanchinek Bach/Webernen maisulan horretan oinarritutako koreografia ahaztezina sortu zuen; eta, hain zuzen, Balanchinek eramango gaitu programako hurrengo lanera, berak eskatu baitzuen, 1935. urtean bertan, **Igor Stravinskiri** ballet bat idazteko, New Yorken sortu berri zuen American Ballet konpainiak interpretatu zezan. Stravinski karta-jokalari sutsua zen, eta hilabete batzuk lehenago Parisko taxi batean bururatu zitzaion ideia zoroari heldu zion: karta-sorta bateko kartak protagonista izango zituen ballet bat egitea. Poker jokoa abiapuntutzat hartuta, ikuskizuna *hiru eskutan* banatuko zuen eta pertsonaia nagusia jokerra izango zen. Stravinskiren iritzi, jokerrak «menderaezina dela uste du, edozein karta bihurtzeko ahalmena duelako», baina karta-sortako erregetzaren ordena naturalak, azkenean, «haren gaiztakeria eta makurkeria garaituko ditu».

**Jeu de cartes**, 1937an estreinatua New Yorkeko Metropolitanen, Stravinskiren bigarrenaldi neoklasikoaren adibide paradigmatico bat da. 1920ko hamarraldian, errusiarrak lengoaia tonal berri bat asmatu zuen iraganeko ereduak oinarritzat hartuta, hala nola Pergolesiren *Pulcinella* eta Txaikovskiren *Maitagarriaren musua*. Baina 1930eko hamarraldian, Stravinskik estilo neoklasiko erabat indibiduala erakutsi zuen; estilo horrek ez du beste ezein egileren musikaren antzik, nahiz eta errusiarrari bere partituretan aipamen asko idaztea gustatzen zitzaion. Horrelaxe gertatzen da, hain zuzen, *Jeu de cartes* lanean, zeinean Ravel, Delibes, Johann Strauss eta Rossiniren aipamenak agertzen baitira.

2016 urtearen amaieran, bidaiatzeko esperientziaren inguruko kontzertu batean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak **Xabier Otaolearen** lehen orkestra-lana estreinatu zuen: *Agartha*. Obra hori gogo beroz hartu zuten bai abonatuak bai kritikak. Handik gutxira, Bilboko konpositore gazteak Orkestrarentzako lan berri bat idazteko mandatuja jaso zuen. Obra horren izena **Izomendi** da, eta gaur gauean estreinatuko da. Lan horretan, Otaoleak berriz heltzen dio bidaiaren *leitmotivari*, baina *Agartha* obran bidaia Lurraren erdigunean kokatutako hildakoen erresumara zen, *Izomendi* lanean, berriz, glaziarretik bat-batean askatu eta jitoan nabigatu ostean, azkenik ozeanoan urtzen den iceberg baten bidaldia deskribatzen da. Otaolearen esanetan, «flotatzen duen izotz-masa erraldoi horren ezaugarriak bereziak dira; izan ere, haren zortziren bat soilik dago uretatik kanpo, urpeko gainerako zatia ezkutuan geratzen da. Ideia horrek elkarren aurkako bi lengoaia erabiliz bi aurpegiko lan bat eraikitzen lagundu zidan: ikusten den zatia desagertzen den bitartean, urpean dagoen alderdi ezkutua agerian geratuko da eta, azkenik, desegin egingo da».

Partiturako lehen konpasetan, adar ingelesak obraren motibo nagusia aurkezten du, icebergaren joan-etorria deskribatzen duen goranzko eta

beheranzko bigarren mailako bitarteko bat, oszilatzailea. Ondoren, izozmendiari bere bidaldian gertatzen zaizkion aldaketa fisikoak simulatzen dituzten hainbat atal datoz, bata bestearen atzetik. «Lanaren tinbrikak soinu altuen bidez –zenbaitetan desatseginak– islatzen du hotza; era berean, gainpresioaren teknikak icebergean gertatzen diren urradurak islatzen ditu, haren masa erraldoian gertatzen diren izotz-jausiak» azaldu du Otaoleak. «Harpa elementu protagonistetako bat da, argi eta garbi, icebergak behin eta berriz egiten duen hotsa irudikatzen duten ostinato bat eta soinu motz sistematikoz osatutako melodia bat interpretatzen ditu. Ondoren, zurezko haize-instrumentuen atalak harparekiko kontrapuntu bat eratzen du, izozmendiaren barruko oihartzun bat emulatuz».

Icebergaren bizitzaren ibilbidearekin batera, *Izomendi* obran sorkuntza-prozesuan konpositoreak izandako barne-errebeldioak ere islatzen dira, Otaoleak beraren eta icebergaren arteko elementu komun bat aurkitu baitzuen: bakardadea. «Konposizioa aldatzen eta nire horizonteak bestelakotzen joan zen; hori dela eta, obrak ideia berriak eskuratu zituen», aitortu du konpositore bilbotarrak. «Bakarrak konposatzen eta neure burua ezagutzen igaro nituen ordu horietan sentitutako bakardadeari buruzko hausnarketa bilakatu zen batez ere. Icebergak bezala, guztiok dugu norberak soilik ezagutzen duen ezkutuko alderdi bat. Horrenbestez, bakardaderanzko bidaia bat bezala deskriba daiteke».

Kontzertuaren azken zatiak beste bidaia bat proposatzen digu, oraingo honetan Kalevara –heroien lurra–; Finlandiako antzinako poesiak bere herrialdeari deitzeko erabiltzen zuen izena da hori. 1830eko hamarraldian, Elias Lönnrot mediku eta folkloristak mendeetan zehar ahoz transmititu ziren mito eta epopeiak bildu zituen eta, haietan oinarrituta, poema epiko bakar bat eratu zuen: *Kalevala*. Lan horren behin betiko bertsoa 1849an argitaratu zen, eta hasiberri zen Finlandiako eraikuntza nazionalaren prozesuaren funtsezko



oinarri bilakatu zen. Kalevalak arte guztiei eragin zien eta, jakina, bai eta musikari ere. Inspirazio-iturri amaiezin bihurtu zen **Jean Sibelius** maisuarentzat, zeinak hango fabulak hartu baitzituen oinarritzat hainbat lan egiteko, hala nola *Kullervo* (1892), *Karelia* (1893), *Pohjolaren alaba* (1906), *Luonnotar* (1913) eta gaur entzungo duguna: **Lemminkäinen suitea** (1895-1900).

Lemminkäinen *Kalevalako* heroirik gogoangarrietako bat da, ile gorri luzeko gaztea, zeinaren nortasunak epika eta pikarokeria uztartzen baititu –Richard Straussen *Till Eulenspiegelen* eran–. Kalevaren luze-zabalean gertatzen diren zenbait abenturetako protagonista da, eta Sibeliusen kondaira horietako lau Liszteren poema sinfoniko heroikoen eraginpean bildu zituen (hala nola Tasso, *Mazeppa* eta *Les Préludes*). Liszteren lan horiek Bayreuthera 1894an egindako bidaia batean jo zituen begiz Sibeliusen. «Egiazki margolari musikal eta poeta bat naizela uste dut», idatzi zion bere emazte Ainori, urte hartako abuztuan. «Esan nahi dut Liszteren ikuspuntu musikala niregandik hurbilen sentitzen dudana dela, poema sinfonikoaren kontzeptu hori. Une honetan oso maitea dudana gai bat lantzen ari naiz. Itzultzen naizenean kontatuko dizut».

Gauzatu ez zen opera-proiektu baten zatiak baliatuz, Sibeliusen lau poema sinfoniko suite batean uztartu zituen, eta gaur horietako hiru entzungo ditugu. Lehenengoan (*Lemminkäinen eta uharteko dontzeilak*), heroi gazteak uharte batean bizitako abenturak kontatzen dira: hainbat emakume seduzituko ditu eta, horren ondorioz, gizonen haserre piztuko du. Bigarrena (*Tuonelako beltxarga*) suiteko zatirik ospetsuena da; bertan, Tuonela izeneko hildakoen uhartearen inguruan igeri egiten ari den beltxarga mistiko baten presentzia liluragarria marrazten du. Lemminkäinenek animalia sakratu hori ehizatzeko helburua du, baina hil egiten da pozoitutako gezi batek jota. Azkenik, heroi bere amaren eskuetan berpiztu eta gero, laugarren mugimenduan (*Lemminkäinenen itzulera*), heroiaren etxerako bidea kontatzen da.

EL GÉLIDO IZOMENDI (ICEBERG) DE OTOALEA CONTRASTARÁ CON LOS RECUERDOS INFANTILES DE STRAVINSKY EN SU *JUEGO DE CARTAS*. BACH Y SIBELIUS COMPLETAN UN AUTÉNTICO PÓKER DE ASES.

# PÓKER DE HIELO

**M**élanie Levy-Thiébaud tuvo su vocación muy clara desde que, con seis años, se puso enferma y su madre, la compositora Graciane Finzi, la hizo subir a un taburete para dirigir las sinfonías de Beethoven con la intención de entretenerla. Estudió clave en el Conservatorio de París y dirección de orquesta en el Liceo de Barcelona junto a Antoni Ros-Marbá y, desde entonces, ha desarrollado una carrera muy cercana a la música contemporánea y a proyectos audiovisuales. Ha realizado múltiples incursiones en el ballet y en la música para cine. Sin ir más lejos, en octubre de 2017, junto con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, puso música en directo a la película de Kosintsev *La nueva Babilonia* (1929). Levy-Thiébaud ha querido abrir el programa de esta noche con una pieza que reúne su pasión por el clave y por las músicas de corte modernista: el **Ricercare a 6** de la **Ofrenda musical** de **Johann Sebastian Bach**, en la extraordinaria orquestación que Anton Webern realizó en 1935, cuando ya era un maestro de la «melodía de timbres», es decir, de la formación de caleidoscópicas melodías mediante la concatenación de notas sueltas de los diferentes instrumentos.

George Balanchine realizó una inolvidable coreografía sobre esta obra maestra de Bach/Webern, y es precisamente Balanchine quien nos conduce a la siguiente obra del programa, ya que fue él, en ese mismo año 1935, quien le pidió a **Igor Stravinsky** que escribiera un ballet para ser interpretado por el American Ballet que acababa de fundar en Nueva York. El apasionado jugador de cartas que era Stravinsky se dejó llevar por una idea loca que había tenido meses antes en un taxi de París: un ballet en el que los protagonistas fueran los naipes de una baraja. Tomando como punto de partida el juego del póker, el espectáculo estaría distribuido en tres “manos” y tendría como personaje principal al jórker, quien, según Stravinsky, “se cree invencible por su habilidad para transformarse en cualquier carta que desee”, aunque el orden natural de la realeza de la baraja terminará por “poner fin a su malicia y villanía”.

**Jeu de cartes**, que se estrenó en 1937 en el Metropolitan de Nueva York, es un ejemplo paradigmático del segundo período neoclásico de Stravinsky. En la década de 1920 el ruso había desarrollado un nuevo lenguaje tonal partiendo de modelos del pasado, como Pergolesi en *Pulcinella* o Tchaikovsky en *El beso del hada*. Pero, en la década de 1930, Stravinsky había perfilado ya un estilo neoclásico completamente individual, que no se parece a la música de ningún otro autor aunque al ruso le gustase introducir infinidad de citas en sus partituras, como ocurre en *Jeu de cartes* con las referencias a Ravel, Delibes, Johann Strauss o Rossini.

A finales de 2016, en un concierto que giró en torno a la experiencia de viajar, la Orquesta Sinfónica de Euskadi estrenó la primera obra orquestal de **Xabier Otaolea**, *Agartha*, que fue acogida con entusiasmo por abonados y crítica. Poco después, el joven compositor bilbaíno recibió una invitación para escribir una nueva obra para la Orquesta, **Izozmendi**, que se estrena esta noche. Otaolea retoma en ella el *leitmotiv* del viaje, pero si en *Agartha* la travesía era al reino de los muertos ubicado en el centro de la Tierra, *Izozmendi* describe el periplo de un iceberg que se desvincula de forma abrupta del glaciar y navega a la deriva para, finalmente, derretirse y fusionarse con el océano. Para Otaolea, “las características de esta inmensa masa de hielo flotante son peculiares, ya que apenas sobresale una octava parte de su volumen total dejando oculta la parte sumergida. Esta idea me ayudó a construir una obra con dos caras, con dos lenguajes diferentes y opuestos: mientras la parte visible desaparece, el lado oculto y sumergido hace acto de presencia y, por último, se desvanece”.

En los primeros compases de la partitura, el corno inglés presenta el motivo principal de la obra, un intervalo de segunda ascendente y descendente, oscilante, que describe el vaivén del iceberg. Se suceden luego diferentes secciones que simulan las alteraciones físicas que sufre el Monte Helado

durante su periplo. “La tímbrica de la obra refleja el frío mediante sonidos agudos, en algunos casos desagradables, y la técnica de sobrepresión refleja los desgarros del iceberg, los desprendimientos de su enorme masa”, explica Otaolea. “El arpa tiene un claro elemento protagónico, ya que interpreta un ostinato y una melodía con sonidos cortos y sistemáticos que reflejan el martilleo del iceberg. Después, la sección de viento madera forma un contrapunto con el arpa emulando un eco interno dentro del Monte Helado”.

Junto al recorrido vital del iceberg, *Izozmendi* refleja las revelaciones internas del compositor durante la elaboración de la obra, ya que Otaolea descubrió un elemento común entre él mismo y el iceberg: la soledad. “La composición fue cambiando y alterando mis horizontes, de tal forma que la obra adquirió nuevas ideas”, confiesa el bilbaíno. “Se convirtió más en una reflexión sobre la soledad, en las horas que invertía en la composición solo y en conocerme a mí mismo. Al igual que el iceberg, todos tenemos una parte oculta que solo conocemos nosotros. Podría describirse, por lo tanto, como un viaje hacia la soledad”.

El último tramo del concierto nos propone otro viaje, esta vez a Kaleva —la Tierra de los héroes—, el nombre que la antigua poesía finesa daba a su país. En la década de 1830 el médico y folclorista Elias Lönnrot recopiló los mitos y epopeyas que se habían transmitido oralmente a lo largo de los siglos y a partir de ellos conformó un único poema épico, titulado *Kalevala*, que fue publicado en su versión definitiva en 1849 y se constituyó en base fundamental del incipiente proceso de construcción nacional finlandés. La influencia del *Kalevala* abarcaría a todas las artes y por supuesto la música, constituyéndose en inagotable fuente de inspiración para **Jean Sibelius**, quien acudió a sus fábulas en creaciones como *Kullervo* (1892), *Karelia* (1893), *La hija de Pohjola* (1906), *Luonnotar* (1913) o la que hoy escucharemos, la **Suite Lemminkäinen** (1895-1900).

Lemminkäinen es uno de los héroes más memorables del *Kalevala*, un hermoso joven de larga cabellera pelirroja en cuya personalidad conviven la épica y la picaresca —a la manera del *Till Eulenspiegel* de Richard Strauss—. Es el protagonista de varias aventuras a lo largo y ancho de Kaleva, y Sibelius recopiló cuatro de

estas leyendas bajo la influencia de los poemas sinfónicos heroicos de Liszt (como *Tasso*, *Mazepa* o *Les Préludes*), en los que Sibelius se había interesado durante un viaje a Bayreuth en 1894. “Pienso que en realidad soy un pintor musical y un poeta”, escribió a su esposa Aino en agosto de ese año. “Me refiero a que el punto de vista musical de Liszt es el que me resulta más cercano, ese concepto del poema sinfónico. Ahora mismo estoy trabajando en un tema que me es muy querido. Te lo contaré cuando regrese”.

Aprovechando los fragmentos de un proyecto operístico que no llegó a materializarse, Sibelius agrupó en forma de suite cuatro poemas sinfónicos de los que hoy escucharemos tres. El primero, *Lemminkäinen y las doncellas de la isla*, narra las correrías del joven en una isla en la que seduce a múltiples mujeres, provocando la ira de los hombres. El segundo, “El cisne de Tuonela”, es el fragmento más famoso de la suite y dibuja la hechizante presencia de un cisne místico que nada alrededor de Tuonela, la isla de los muertos. Pero Lemminkäinen, que tiene la misión de cazar a este animal sagrado, muere atravesado por una flecha envenenada. Por último, y tras la resurrección del héroe en manos de su madre, el cuarto movimiento, *El regreso de Lemminkäinen*, relata su camino de vuelta a casa.

Mikel Chamizo

HURRENGO ABONU KONTZERTUA  
PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

Martxoak 13 Marzo

AIRE BOHEMIOAK

AIRES BOHEMIOS


BEETHOVEN  
DVORAK

SARRERAK  
ENTRADAS

10€ < 35€

- euskadiorkestra.eus  
- principaltantzokia.org  
- 945161045  
- Taquilla Principal Ieihatila

AZKEN  
ORDU  
GAZTEA!  
10€



**III**  
**O**  
EUSKADIKO  
ORKESTRA